



#KontatuEgingoDugu

Ondo dakigu aipatzen ez dena ez dela existitzen. Ez dena zenbatzen ezta ere. Beharrezkoa da beraz emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko zenbakiei so egitea, sistema patriarkalaren maxima baitira.

Genero indarkeria, bere zentzurik zabalenean, emakumeen aurkako indarkeria era guztiak hartuta, mundu osoan hedatuen dagoen delitua da.

- Hiru segundoro neskatxa bat derrigortzen dute ezkontzera.
- Munduan 3 emakumetatik batek indarkeria fisikoa edo sexuala jasan du bere bizitzan zehar.
- 3 milioi neskatila ablazio biktima dira urtero.
- Bortxaketak arma moduan erabiltzen dira gatazka guneeetan.
- Emakumeen erailketa gehienak bikotekideek edo bikotekide ohiek egiten dituzte eta pertsonen.
- Salerosketaren biktimen %71 emakume eta neskatilak dira (ACNUR, 2019).



Ezin ditugu emakume etorkinak ahaztu, migrazio prozesuetan, askotan, bortxatuak edo salerosketen biktima, ez dute izaten gainera errefuxiatu estatusa ziurtatuta helmuga herrialdeetan. Palestinako emakumeak ere ez ditugu ahaztuko, Gazako Zerrendan bonbek sediatuak, elikagai, elektrizitate, botika eta urik gabe, horietako 50.000 haurdu, eta are gutxiago ahaztu gure ahizpek Afganistanen, Iranen, Libian, Sudanen edo Bangladeshen, besteak beste, jasaten duten errepresio gogorra.



EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN NEGAZIONISMOA

Espanian, patriarkatuaren berregituraketa bizi dugu eskuin muturreko indar erreakzionarioek aurrera egin izanagatik, erakundeetan sartu dira eta emakumeen aurkako indarkeriaren negazionismoa ezartzen saiatzen dira emakume biktimentzako prebentzio eta arreta osoa emateko zuzendutako baliabide, zerbitzu eta politikak murriztuz edo eta zuzenean ezabatuz.

- Genero indarkeriagatiko salaketek gora egin dute, baita ere emakume erail kopurua. 2003 urtetik, bizirik behar luketen 1234 emakume izan dira erailak. Aurten dagoeneko erailak izan diren emakume kopuruak (51) 2022 urtekoa gainditu du.
- Espainian, emakumearen aurkako indarkeriaren makroinkestaren arabera, 2019 urtekoa, bi emakumetatik ia batek (%44) nolabaiteko sexu indarkeria jasan du bere bizitzan zehar, eta hala ere, salatu behar dugu probintzia gehienetan ez direla martxan jarri Askatasun Sexualaren Legean ezarri diren 24 orduko arreta zentroak.



Eraildako emakumeak ez dira zifra hutsa. Indarkeria matxista onartezina da, emakume bakar batez ariko bagina ere, ez dugu erailketa bakar bat ere onartuko. Gizarte osoaren porrota da.

Gainera, genero indarkeria era batzuk, sexu jazarpena edo sexu arrazoiengatiko jazarpena esaterako, ez dira oraindik ere era espezifikoan zenbatzen. 2019ko Emakumearen aurkako indarkeriaren makroinkestak ematen duen datu bakarra da lan esparruan 1,4 milioi emakumek baino gehiagok onartu duela sexu jazarpena pairatu izana lantokian eta erasotzaileen %98 gizonetzkoak izan direla.



SEXU JAZARPENA ETA SEXU ARRAZOIENGATIKO JAZARPENA

Sexu jazarpena eta sexu arrazoiengatiko jazarpena estalita dagoen eta estaltzen den delitua da. "Mantxa" bat da jasaten duen pertsonarentzat baita enpresarentzat ere.



Onartuak dauden gizonezkoen zenbait jarrerren naturalizazioak kultura patriarkalak gidatzen duen gizarte honetan gutxitu egiten dute delitua. Zoritxarrez erdigunean biktima jartzen da erasotzailea jarri beharrean. Bestetik, enpresek, kasu askotan, kanpoko gaitzat hartzen dute, ez diote jaramonik egiten edo estaltzen saiatzen dira, enpresak berak direnean “sexu jazarpena eta sexu arrazoiengatiko jazarpena ekiditen dituzten lan baldintzak sustatu behar dituztenak eta horren biktima izan diren pertsonen salaketa edo erreklamazioei bidea ireki behar diotenak” (LOIMH, 48. Art.).



Sexu jazarpenak “zikindu egiten du ” eta estali egin ohi da. Estaltzen jarraitzen da aurten iskanbila sortu duen Rubiales kasuak sexu jazarpena agenda publikoan jarri duen arren, komunikabideek egindako jarraipenak ikustarazten lagundu duen arren eta gizarte onarpenarekin hausten lagundu duen arren.

CCOOK AURRERA PAUSUA EMAN DUGU

Bukatu da

Gaia ezkutuan mantentzearen aurrean eta emakumeen aurkako indarkeriarekin bukatzeko asmoz, CCOOK aurrera pausua eman du. Bukatu da esaten dugu. Emakumeek diogu baina baita ere sindikatu honetako gizonezkoek, indarkeria matxisten aurkako borroka denona delako.

Sindikatatik kontatu egingo dugu emakumeei hitza emanez. Tresna sindikal baliagarri eta berriekin, CCOOko Sexu Jazarpenaren eta Sexuagatiko Jazarpenaren Behatokia esaterako.

Eta kontatu egingo dugu:



Egunero gure ekintza sindikalaren bitartez lantokietan ditugun langileen ordezkarien bitartez. Gure aktibo sindikala, CCOOko emakume eta gizonak prebentzio lerro dira eta aktiboak era bikoitzean. Lagundu egiten dutelako, aholkatu eta bideratu egiten dituzte biktima diren emakumeak eta agertzen diren kasuen salaketen aurrean ekin egiten dutelako.



Negoiazio kolektibo mahai bakoitzean hitzarmen eta berdintasun planetan sexu jazarpen eta sexu arrazoiengatiko jarrerak erantsi egiten dituzte, horiek hauteman zein ekidin ahal izateko eta zehapen neurrien barruan sartuz.



Onartuak dauden gizonezkoen zenbait jarrerren naturalizazioak kultura patriarkalak gidatzen duen gizarte honetan gutxitu egiten dute delitua. Zoritxarrez erdigunean biktima jartzen da erasotzailea jarri beharrean.



Bestetik, enpresek, kasu askotan, kanpoko gaitzat hartzen dute, ez diote jaramonik egiten edo estaltzen saiatzen dira, enpresak berak direnean "sexu jazarpenera eta sexu arrazoiengatik jazarpenera ekiditen dituzten lan baldintzak sustatu behar dituztenak eta horren biktima izan diren pertsonen salaketa edo erreklamazioei bidea ireki behar diotenak" (LOIMH, 48. Art.).

Azaroaren 25ean CCOOtik dei egiten dugu enpresa eta administrazio publikoetatik era irmoan jarduteko genero indarkeria era honen aurka, behingoz, bukatu dela esan ahal izateko.

Behatokia tresna berria da eta aitzindaria Europan, ordezkari bakoitzak ezagutu behar duena hau aprobetxatu ahal izateko.



EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREKIN AMAITU

- CCOO sindikatu feminista da, beraz erantzukizun sindikal moduan sexu jazarpenera eta sexu arrazoiengatik jazarpeneraren aurrean ekin egiten duena, baita lantokietan ematen den ziberjazarpenera eta horren prebentzioan laguntzea, biktimei laguntza eskainiz eta genero indarkeriaren murrizketa bilatuz lan arloan ekinez lantokietako egunerokotasunean.
- Sindikalki ekin egin behar dugu, gure ahalegina organismo, erakunde publiko eta mugimendu feministari gehituz emakumeen aurkako indarkeria era guztiekin bukatu ahal izateko.
- Urtero bezala, mugimendu feministak deitutako ekimen eta manifestazio bateratuekin bat egiten dugu hiru lurraldeetan.

Geuk, CCOOko agenteok, gure ahotsa entzunaraziko dugu lantokietan:

**Sexu jazarpenerari ez!
Indarkeria matxista gehiagorik ez!
Sexu jazarpenera ere indarkeria matxista da!
Sexu jazarpenerik gabeko lantokiak!**